



Ikertzaile agurgarria:

Ziur aski jakinaren gainean egongo zara Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak (MINECO) "*RAMÓN Y CAJAL AZPIPROGRAMA*" izeneko laguntzak deitu dituela, Espainiako I+G zentroek jakintza arlo guztietako doktoreak lanerako kontratatzeko, bost urteko eperako.

Deialdiaren informazio orokorra

Deialdia argitaratzearekin batera, **aldi berean** irekiko da eskaerak aurkezteko epea bai I+G zentroentzat bai ikertzaileentzat:

- I+G zentroek finantzatuko luketen gehienezko kontratu kopuruaren eskaintzak egingo dituzte, horien gaikako banaketa adierazita, arrazoiak eta erakundearen planetara nola egokitzen diren azalduz.
- Ikertzaile hautagaiek beren eskaera aurkeztuko dute ikerketa zentroa edozein izanda ere, eta CVa eta garatzeko gai diren ikerketa ildoen memoria erantsiko dituzte.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo du UPV/EHUren eskaera, eskaini beharreko plazak jasoz, ikerketa taldeek edo, hala badagokio, PIUek bidalitako interesezko adierazpenetan oinarrituta, jarraian adierazitako prozedura eta irizpideen arabera.

Jasotako interesezko adierazpenak UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordean aztertuko dira, eta, horien guztien artean, Ikerketaren arloko errektoreordeak proposatuta, UPV/EHUK Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena jaso eta deialdian aurkeztuko dituenak aukeratuko dira, bertan ezartzen den bezala.

Jasoko den finantziazioa eta kontratuen kostua

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak urtean 33.720 eurekin finantzatuko du kontratu bakoitza, eta UPV/EHUK bere gain hartuko du ezarritako gutxieneko nomina gordinaren (31.600 euro) eta kuota patronalaren arteko aldea.

UPV/EHUK aurkeztuko dituen interesezko adierazpenen hautaketan erabiliko diren irizpideak

Ramón y Cajal deialdian aurkezteko interesezko adierazpenak hautatzeko aplikatuko diren irizpideak, funtsean, interesezko adierazpena proposatu duen ikertzailearen eta R&C ikertzailearen harrera taldearen jarduera zientifikoarekin lotuta daude; ikertzaileak Euskal Unibertsitate Sistemako talde batekoa (finkatuak) edo UPV/EHUko talde aktibo batekoa izan behar du.



Zehazki, honako hauek izango dira irizpideak:

- Proposamena egin duen ikerketa taldearen edo PIUren balorazioa.
- Interesezko adierazpena proposatu duen ikertzaileak Euskal Unibertsitate Sistemako talde batekoa (finkatuak) edo UPV/EHUko talde aktibo batekoa izan behar du.
- Proposatutako gaiaren garrantzia I+G+B planen arabera.
- Ikerketa taldean langile gehiago sartzeko instalazio egokiak izatea.
- Lehentasuna izango dute ikerketa taldeekin erlazionatutako eta deialdian parte hartzen duten hautagaien CVarekin batera aurkeztu diren interesezko adierazpenek, CVak R&C deialdian emaitza positiboa aurreikustea ahalbidetzen badu.
- Lehentasuna izango dute aurreko deialdietan R&C ikertzailerik lortu ez duten taldeek aurkeztutako interesezko adierazpenek.

Deialdiko interesezko adierazpenen kudeaketa honako data eta mugarri egutegi honetara egokituko da:

1. Interesezko adierazpenak (erantsitako formatuaren arabera eratuak) hautagaiaren CVarekin batera (hautagairik izanez gero) jasotzeko epea **2015eko urtarrilaren 7ra artekoa** izango da, egun hori barne.
2. Ministerioaren web orrian aurkeztuko da **2015eko urtarrilaren 20ko 15:00ak baino lehen**.

Prozesuaren kudeaketan jarraituko diren irizpideak:

1. Formularioak, interesezko adierazpen proposamenekin eta hautagaien CVekin (halakorik izanez gero), soilik posta elektronikoz jasoko dira, formularioak eta CVak PDF formatuan erantsita.
2. Garapen eta Berrikuntza Batzordetik ez da pasatuko **urtarrilaren 7ko 24:00en ondoren** jasotzen den interesezko adierazpenik.
3. Garapen eta Berrikuntza Batzordeak interesezko adierazpenen hautaketa onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak posta elektronikoz jakinaraziko diete proposamen-egileei Garapen eta Berrikuntza Batzordean eginiko azterketaren emaitza, bai onartutakoei dagokienez bai onartu ez direnei dagokienez.
4. Interesezko adierazpenaren deskribapena jasotzen duen formularioko atalak gehienez 750 karaktere izango ditu, Ministerioaren web orriko atal baliokideak espazio hori baitauka.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEZTA
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak 750 karakterera bitarteko formularioko testua sartuko du. Gainerako testua, hau da, zifra horretatik aurrerakoa, ezin izango da sartu.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du jasotako testuaren laburpenik egingo 750 karaktereko mugara egokitzeko.

5. Ez da beharrezkoa interesezko adierazpenari erantsitako dokumentazioa aurkeztea.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzari bidaliko zaizkio interesezko adierazpenak

Interesezko adierazpenak soilik posta elektronikoz bidaliko dira honako helbide honetara:
[mailto: nieves.rekakoetxea@ehu.es](mailto:nieves.rekakoetxea@ehu.es)

Zure saileko kide interesdunei mezu hau helaraztea eskatzen dizut, interesezko adierazpen eredia jasotzen duen eranskinarekin batera.

Beste argibideren bat behar izanez gero, jar zaitetz harremanetan jarraian aipatzen diren ikerketako kudeaketa teknikariek.

Agur bero bat.



Antón Romo

Ikerketaren Gestioko zuzendaria



	IKASTEGIAK	TEKNIKARIA	TEL.	Helbide elektronikoa
Arabako Campusa	<ul style="list-style-type: none">• Farmazia F.• Letren F.• Gasteizko Enpresa Ikasketen UE	Susana Sanz	946013126	convocatoriasaraba.dgi@ehu.es igz.arabadeialdiak@ehu.es
		Javier López de Lacalle	945014407	
	<ul style="list-style-type: none">• Gasteizko Ingeniaritzako UE• Gasteizko Irakasleen UE• Gasteizko Gizarte Langintzako UE• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	María Martín	945013421	
		Iker Cantabrana	945013603	
Bizkaiko Campusa	<ul style="list-style-type: none">• Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea• Bilboko Enpresa Ikasketen UE• (Zubiri Etxea-Sarriko)	Roberto de Miguel	946013630	igz.bizkaia3deialdiak@ehu.es convocatoriasbizkaia3.dgi@ehu.es
		Brenda Ubeda	946013629	
	<ul style="list-style-type: none">• Bilboko Ingeniaritza GET• Nautika eta Itsasontzi Makineria GET• Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE• Bilboko Ingeniaritza Teknikoko UE	Pilar Furones	946017246	convocatoriasbizkaia1.dgi@ehu.es igz.ibizkaia1deialdiak@ehu.es
		Ane Arruza	946018253	
		Mikel Uria	946013964	
	<ul style="list-style-type: none">• Medikuntza eta Odontologia Fakultatea• Leioak Erizaintzako UE• Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Elena Erice	946018169	convocatoriasbizkaia2.dgi@ehu.es igz.bizkaia2deialdiak@ehu.es
		Endika Ceballos	946018171	
		Cristina Castro	946013341	
		Leire Carballes	946018172	
		Leire Idoiaga	946018167	
<ul style="list-style-type: none">• Bilboko Irakasleen UE• Arte Ederren Fakultatea• Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea• Lan Harremanen UE	Isabel Urrutia	946017934	convocatoriasbizkaia4.dgi@ehu.es igz.bizkaia4deialdiak@ehu.es	
	Egoitz Celaya	946018445		
Gipuzkoako Campusa	<ul style="list-style-type: none">• Zuzenbide F.• Informatika F.• Kimika F.• Arkitektura GET• Psikologia F.• Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	Amalia Fotinopulos	943015974	convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.es igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es
		Elena Adarraga	943015180	



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN

	<ul style="list-style-type: none">• Donostiako Enpresa Ikasketen UE• Donostiako Erizaintzako UE• Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE• Donostiako Irakasleen UE• Donostiako UE Politeknikoa	Lierni Irure	943015503	
		Cristina GarcíaLeiva	943015683	